



EBAZPENA, 2021EKO ABENDUAREN 27KOA, LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, 2021-2022 IKASTURTE-HASIERAKO ESLEIPEN-PROZESUAREN ESPARRUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ALDI BATERAKO IRAKASLEEN BEHARRAK ESTALTZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDARI BURUZKOA.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2021-2022 ikasturte hasierako prozesuan esleitu gabe geratu ziren lanpostuak esleitzeko prozesuaren deialdia egin zen Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2021eko maiatzaren 25eko ebazpenaren bidez.

2021-2022 ikasturte horretan, Hezkuntzako sailburuaren 2020ko ekainaren 1eko Agindua aplikatu zen izangaiantzako lanpostuak telematikoki esleitzeko prozeduran. Agindu horren bidez, aldi baterako premiak betetzeko zerrendako hautagaiei lanpostuak ikasturte hasieran telematikoki esleitzeko prozedura arautzen da.

Bigarrena.- Era berean, adierazi behar da esleipen-prozesuaren funtsezko premisetako bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Agindua dela, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartu zuena.

Hirugarrena.- Bestalde, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2021eko abuztuaren 26ko ebazpenak behin betiko argitaratu zuen 2021-2022 ikasturte hasierako esleipen-prozesua. Esleitutako pertsonen eta plazen zerrendak ikasturte hasierako esleipen-aplikazioan interesdunen eskura jarri ziren, irakaslegunean eta Hezkuntza Sailaren web-orriko prozesu horri buruzko iragarki-taulan.

2021eko irailaren 3an argitaratu zen Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpena, 2021-2022 ikasturte-hasierako esleipen-prozesua behin betiko ebazten zuena iraileko esleipen-faseari dagokionez.

Bi ebazpenek esleipenaren hasiera-data ezartzen zuen eranskina zuten, eta hori hartu zen hautagaien izendapen-datatzat.

Laugarrena.- 2021eko azaroaren 29an, Hezkuntza Sailaren web-orriko iragarki-taulan argitaratu zen Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren jakinarazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako aldi baterako irakasle-beharrak estaltzeko zerrendako hautagaiak baztertzeko prozesuari hasiera ematen ziona.

Jakinarazpen horretan, 1. eranskinean, 2021-2022 ikasturtearen hasieran esleitutako lanpostuari modu ez justifikatuan uko egin zioten hautagaien zerrenda jasotzen zen, eskainitako lanpostua eta lanpostua zein ikastetxeri dagokion adierazita.

Bosgarrena.- Irakasleen ordezkapenak egiteko zerrendatik kanpo utzi aurretik, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 44.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, hamar egun



balioduneko epea eman zen egokitzat jotzen zena alegatu ahal izateko, jakinarazpen hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izapide hori egiteko emandako epea amaitu ondoren, baztertze-prozesu hau ebazten da, honako klausula hauen arabera:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak du ebazpen hau emateko eskumena, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Hezkuntzako sailburuaren 2020ko ekainaren 1eko Aginduak arautzen du aldi baterako premiak estaltzeko zerrendako hautagaiei lanpostuak ikasturte hasieran telematikoki esleitzeko prozedura.

7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera:

“Esleipenaren ohiko eta ezohiko faseetan nahitaez eta borondatez parte hartzea.

1. – Esleipenaren ohiko eta ezohiko faseetan, aldi baterako premiak betetzeko hautagaien zerrenda orokorrean eskuragarri dauden pertsona guztiek parte hartuko dute nahitaez, dagokion faseko parte hartzeko formularioa aurkezteko epea hasten den egunean.”

Horretarako, Hezkuntza Sailak argitaratutako urteko birbaremazio-prozesutik ateratako datuak hartu behar dira kontuan, egiaztatutako hizkuntza-eskakizunari, prestasunari eta uko egiteari dagokienez izan ezik. Datu horiek gerora sortutako arrazoiengatik aldatu ahal izango dira, baldin eta lurralde-ordezkaritzetako langileen zerbitzuetan eskatzen bada prozesu honetarako eskabideak aurkezteko epea hasi baino gutxienez bost egun lehenago.

Hirugarrena.- 2021eko azaroaren 29ko jakinarazpenaren 1. eranskinean jasotako hautagaien kasuan, horiek esleipen-prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen zituzten ohiko eta ezohiko fasean, kasuaren arabera, eta lanpostu bat esleitu zitzaizen araudi erregulatzaillean xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Aipatutako 1. eranskinean jasotako pertsonak ez zuten lanpostu hori hartu edo zerbitzuak emateari utzi zioten, behar bezala justifikatu gabeko arrazoiengatik.

Ildo horretan, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 44.1 f) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, zerrendetatik kanpo uzten dira hautagaiak:

“1. – Zerrendatik kanpo uzteko arrazoiak honako hauek dira:



f) *Esleitutako lanpostuaz ez jabetzea, edo zerbitzuak emateari uztea, behar bezala justifikatu gabeko arrazoiren batengatik.*

Halaber, 2020ko ekainaren 1eko Aginduaren 21. artikulua honako hau ezartzen du:

*“1. – 2. paragrafoan jasotako kasuetan izan ezik, esleitutako lanpostuari eta, hala badagokio, egindako izendapenari **uko egitea justifikaziorik gabekotzat joko da, eta irakasleen aldi baterako beharrak betetzeko hautagaien zerrendatik kanpo uztea ekarriko du.***

Lanpostuaz jabetzeko egunean ikastetxean aurkezten ez den pertsona izendapenari uko egiten diola ulertuko da.

*2. – Honako hauek hartuko dira **uko egite justifikatutzat:***

A) Irakasleen aldi baterako beharrianak estaltzeko hautagaien zerrendak kudeatzeari buruzko araudian jasotako uko egiteko arrazoiren bat egotean oinarritutakoa, salbu eta gaixotasunaren edo istripuaren kasuan; kasu horretan, uko egiteko arrazoi justifikatua izango da soil-soilik baldin eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako zerbitzu medikoak emandako txostenak, interesdunaren bizilekuari dagokionak, uste badu lana betetzeak zaildu egiten duela osasuna errekuperatzea, eta litekeena dela egoera hori hoge lanegun baino gehiagoz luzatzea, lanpostuaz jabetzen den egunetik zenbatzen hasita.

(...)”

Bestalde, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 40. artikulua honako hau xedatzen du:

40. artikulua. – Uko egitea.

*1. – Eskaintzaren unean berariaz adierazten bada, honako hauek onartuko dira egindako eskaintzari **uko egiteko arrazoi justifikatu gisa:***

*A) Aldi baterako **baja-egoerarako** zerrendetan jasotako kasuren batean egotea.*

B) Borondatezko esleipen gisa adierazitako lanpostua izatea.

*2. – **Arrazoi hauek ere onartuko dira:***

A) Hautagaiak uko egitea, ezauzgarri espezifikoak dituzten lanpostu jakin batzuk betetzeko gaitasunik ez duela uste duelako, agindu honetan ezarritako protokoloaren arabera.

B) Izangaiak uko egitea, eskaintako lanpostuaren berezko eginkizunak betetzearekin bateraezina den minusbaliotasun fisikoa duelako. Egoera hori behar bezala egiaztatuko beharko da.

Agindu horren 30.1 artikulua honako hau adierazten du:



“1. – Honako egoera hauetakoren batean daudela egiaztatzen duten pertsonak igaroko dira aldi baterako baja-egoerara:

A) Gaixotasun arruntak edo lanetik kanpoko istripuak eragindako aldi baterako ezintasuna.

B) Lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasuna.

C) Haurdunaldiko edo haurdunaldiko arriskua, behar bezala egiaztatuta.

D) Amatasuna, adopzioa eta harrera: amaren kasuan, haurdunaldiko zazpigarren hilabetetik erditu ondorengo hemezortzigarren astera bitartean. Epea hogeigarren astera artekoa izan daiteke seme edo alabaren desgaitasun-kasuetan, eta erditze anizkoitzekoetan, bigarrenetik aurrerako seme-alaba bakoitzeko.

E) Aitatasuna: seme edo alaba bat jaio, adoptatu edo hartu, harrerari buruzko erabaki administratibo edo judiziala hartu edo adopzioa eratzen duen ebazpen judiziala eman eta hurrengo 4 asteetan. Arrazoi horrengatik aldi baterako baja-aldia gerora aldatzeko, horretarako ezartzen diren lege-xedapen orokorrak bete beharko dira.

G) Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailarainoko senideen gaixotasun larria edo heriotza. Aldi baterako baja-egoera 3 lanegunekoa izango da odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailarainoko senideen heriotzagatik, edo, elkarrekin bizi badira, urrunagoko mailarainoko ahaideen heriotzagatik, eta 5 lanegunekoa ezkontidearen, bikotekidearen edo semearen edo alabaren gaixotasun larri justifikatuagatik edo heriotzagatik. Odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailarainoko ahaideen gaixotasun larri justifikatuagatik, edo, elkarrekin bizi badira, urrunagoko mailakoa izateagatik, muga bi lanegunekoa izango da.

(...)

H) Norberaren ezkontza edo izatezko bikotea eratzea, Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera, betiere EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada aldi baterako baja dagokion erregistroan egin edo inskribatu eta hurrengo 20 egun naturalen barruan edo aurretik gertatzen bada.

I) Askatasun-gabetzea, kondena-epaia eman arte.

J) Hezkuntza Sailak, HAEK edo beste autonomia-erkidego batzuetako hezkuntza-administrazioek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.

K) Ikasketa-bekak edo hezkuntza-sistemeekin zuzenean lotutako bekak edo laguntzak izatea.



L) Ikasketa ofizialak eta/edo praktikoak egiten aritzea.

M) Edozein lan-kontratu izatea, administrazio publiko batean izendatzea, edo Gizarte Segurantzaren autonomo gisa alta emanda egotea. Kasu horretan, merezimenduen baremoko 3. atalean eskatzen diren egiaztagiria aurkeztuko dira.

N) Atzerrian GKE batentzat lanak egiten aritzea.

Ñ) Karrerako funtzionarioentzako zerbitzu berezien deklarazioa dakarren kasuren batean egotea.

O) Genero-indarkeriaren, terrorismoaren, jazarpenaren edo beste edozein indarkeria-motaren biktima izatearen arrazoiak; betiere, egiaztatu egin beharko dira.

P) Gaitasun-protokoloa ebaztea, babesten duen arrazoiaren behin-behineko kalifikazioarekin, eta ezin izango da luzatu horietako bakoitzerako ezarritako epea baino epe luzeagoan."

Seigarren aurrekarian azaldutakoaren arabera emandako alegazioak aurkezteko epea amaituta, eta horiek aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT

Bakarra.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkapenentarako hautagaien egoera, "justifikatutako uko-egite" egoeran edo "justifikatu gabeko uko-egite" egoeran, zerranda honen arabera:

DNI	LLHH	ESLEIPENA	ZB.	ZENTROA	BEHIN-BETIKO EGOERA
72691773	01.ARABA	2021/8/26	31915	IES ZABALGANA BHI	Justifikatutako uko-egitea
72517627	20.GIPUZKOA	2021/8/26	15919	CEPA BIDASOALDEA HHI	Justifikatutako uko-egitea
72507243	20.GIPUZKOA	2021/8/26	30557	IES J.M. IPARRAGIRRE BHI	Justifikatutako uko-egitea
44332327	20.GIPUZKOA	2021/8/26	29862	IES SORALUZE BHI	Justifikatutako uko-egitea
22720793	48.BIZKAIA	2021/9/3	9228	CEIP SRA. VDA. DE EPALZA HLHI	Justifikatutako uko-egitea / Okupatuta
20176898	20.GIPUZKOA	2021/8/26	16674	CEIP J.A. MOGEL IKASTOLA HLHI	Justifikatutako uko-egitea / Okupatuta
72840253	01.ARABA	2021/8/26	24705	IES ANITURRI BHI	Justifikatutako uko-egitea
72318401	20.GIPUZKOA	2021/9/3	32836	CIFP ARMERIA ESKOLA LHII	Justifikatutako uko-egitea
72523175	01.ARABA	2021/9/3	31967	EASD I D ARTE AGDE	Justifikatutako uko-egitea
78931059	20.GIPUZKOA	2021/9/3	26983	IES ELGOIBAR BHI	Justifikatutako uko-egitea / Okupatuta
16052148	48.BIZKAIA	2021/8/26	4446	CPI DEUSTUKO IKASTOLA IPI	Justifikatutako uko-egitea / Okupatuta
72729864	01.ARABA	2021/8/26	30944	IES LAUDIO BHI	Justifikatutako uko-egitea
44152285	20.GIPUZKOA	2021/9/3	20175	CEIP J.A. MUÑAGORRI HLHI	Justifikatutako uko-egitea
78942014	48.BIZKAIA	2021/8/26	11218	CEIP ARTEAGABEITIA HLHI	Justifikatutako uko-egitea
44153976	20.GIPUZKOA	2021/9/3	30891	IES LIZARDI BHI	Justifikatu gabeko uko-egitea



DNI	LLHH	ESLEIPENA	ZB.	ZENTROA	BEHIN-BETIKO EGOERA
72505386	20.GIPUZKOA	2021/8/26	30179	CPI JUAN ZARAGUETA HERRI ESKOLA IPI	Justifikatutako uko-egitea
35775944	01.ARABA	2021/8/26	23550	IES LOS HERRÁN BHI	Justifikatutako uko-egitea
79006879	48.BIZKAIA	2021/8/26	8002	CEIP CONCHA HLHI	Justifikatutako uko-egitea
72737057	01.ARABA	2021/8/26	30007	CPI MENDIALDEA IP	Justifikatutako uko-egitea
52442479	20.GIPUZKOA	2021/8/26	19533	IES TALAIA BHI	Justifikatutako uko-egitea
79005221	20.GIPUZKOA	2021/9/3	32263	CIFP POLÍTICO EASO POLITEKNIKOA LHII	Justifikatutako uko-egitea
72577079	01.ARABA	2021/8/26	32098	IES LOS HERRÁN BHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
44643299	20.GIPUZKOA	2021/9/3	32755	CIFP BIDASOA LHII	Justifikatutako uko-egitea
72312699	20.GIPUZKOA	2021/9/3	15776	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	Justifikatu gabeko uko-egitea
79000580	01.ARABA	2021/8/26	29914	CPI SAMANIEGO IPI	Justifikatutako uko-egitea
72485499	01.ARABA	2021/9/3	23527	IES LOS HERRÁN BHI	Justifikatutako uko-egitea
72817213	01.ARABA	2021/9/3	23335	CIFP MENDIZABALA LHII	Justifikatutako uko-egitea
14576272	48.BIZKAIA	2021/8/26	9432	CEIP MAESTRA ISABEL GALLEGO GORRIA HLHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
44132473	20.GIPUZKOA	2021/9/3	28906	IES ORIARTE BHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
79115550	01.ARABA	2021/9/3	20987	IES SAMANIEGO-LAGUARDIA BHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
73449853	01.ARABA	2021/9/3	23828	IES FEDERICO BARAIBAR BHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
72515755	20.GIPUZKOA	2021/8/26	30743	IES BIDEBERRI BHI	Justifikatutako uko-egitea
30622645	48.BIZKAIA	2021/8/26	6421	CEIP LEGARDA HLHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
72802229	01.ARABA	2021/8/26	30580	IES SAMANIEGO-LAGUARDIA BHI	Justifikatutako uko-egitea
72802600	01.ARABA	2021/8/26	30291	IES LAKUA BHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
72689470	20.GIPUZKOA	2021/8/26	32475	IES PLAIAUNDI BHI	Justifikatutako uko-egitea
14945569	48.BIZKAIA	2021/9/3	33296	BIZKAIA	Justifikatutako uko-egitea/ Okupatuta
44563716	20.GIPUZKOA	2021/9/3	33001	CIFP FRAISORO ESKOLA LHII	Justifikatutako uko-egitea
78861517	48.BIZKAIA	2021/8/26	6396	CEIP LEGARDA HLHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
72487504	01.ARABA	2021/8/26	30933	IES LAKUA BHI	Justifikatu gabeko uko-egitea
72482023	01.ARABA	2021/8/26	33077	CPM JESÚS GURIDI MKP	Justifikatu gabeko uko-egitea

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 27a

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA